

GIG 26

AITZANDI PUNTAKO TOLES ETZANA

BALIO INTRINTSEKOA: 3,5

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,5

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapari hondartzatik ekialdera, Aitzandi puntan, Geoparkeko tolesik ikusgarriena dago; toles hori, gainera, arro osoko toles etzanen adibiderik bikainenetako bat da. Iparralderantz iraulitako eta dimentsio dekametrikoko toles erreku bente bat da; gontza nahiko estua du, eta plano axiala, berriz, hego-mendebalderantz pixka bat okertuta. Gontz inguruan, argi ikusten da portaera desberdina dutela hareharriek eta tupek: hareharriak gogoragoak direnez, zartatu egiten dira, eta deformazioa haietara moldatzen da; tupak, berriz, bigunagoak dira eta tolestura jarraituak eragiten dituzte. Halaber, itsaslabarraren zehar-ebaki irregularari esker, erraz ikus eta neur daiteke tolesaren ardatza.

Tolesa hegoalderantz 100 metro ingurura dagoen faila batekin egon daiteke lotuta; badirudi narras-tolesa zela hasiera batean, eta baskulatu izan zela gerora, egungo posizio horizontala hartu arte.

GIG honek aukera didaktiko handiak ditu adituentzat. Hiru dimentsioko erreproduktzio bat egin da, eta aditu batzuk aztertzen ari dira zer-nolako lotura duen egitura honek inguruko gainerako egiturekin.

NOLA BERTARATU

Debatik Itziar aldera jo behar da, N-634 errepidetik. Autoa begiratokian aparkatu, Sorginetxera joateko bidexka hartu (bidexka ez dago seinaleztatuta), eta marearteko zabalguneraino jaitsi behar da. Baina ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke bertara, eta arriskutsu samarra da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Aitzandi puntako toles etzanaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 553146 m / Y= 4794599 m / Alt.= 5 m



Gontz ingurua, gertutik ikusita: tolesaren ardatza argi bereizten da, bai eta estratuen portaera desberdinak ere.